

25 URTE DANBORRA JOTZEN

Mende laurden beteko du
aurten haurren danborradak.
Urte hauetan guztietan,
Zumaiako ia ume guztiak
astindu dituzte barrilak eta
danborrak.

Makilak gora, eta goazen!



Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

ZUMAIA
Basadi auzategia, 4.
Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ
Salegi kalea, 14.
Tel./Faxa: 943 890 215

Juanjo Larrañaga harategia



ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

BALEIKE 23 I

AZALA Jakintza K.E.



9

baleike +

HAUR DANBORRADAK 25 URTE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzardea: Agustin Zubimendi eta
Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietak, Izaskun Urbietak eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legar dardailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



5

hitz-tantak
TELMO TRENADO

29

agenda
SANTELMOAK

20

elkarrizketa
JOXE APAIZA

30

bertso xorta
MANEX ELOLA
TXAPARTEGI

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



TOKIKOM



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak




LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



GERRAKO BOST DESAGERTU AURRITU DITUZTE

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



GERRAKO BOST DESAGERTU AURRITU DITUZTE



ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXKO ZAPATAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapatak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA



D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com

OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 501 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net




Basadi albaitaritzza

Ribaitario
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.maribelbasadi@cinivel.com
www.basadi@cinivel.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astehen goizean eta larunbatean bita
Lanaldietarako: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzu

BASUSTA
ERRETEGIA



Patutia Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



Braky's
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

TELMO **TRENADO** | magoa

“Une batez ikusleari
magia
bizarraztea da
magoaren
erronka”

HITZ-TANTAK

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



Gehienoi bezala, Telmo Trenadori (Zumaia, 1995) ere Magia borras oparitu zioten umetan. “Orduan ez nion kasu handirik egin, bertan agertzen ziren gauza gehienak ez nituelako ulertzen”. Duela lauzpabost urte, magiaren sukarrak jota ibili zen pare bat hilabetez, telebista saio baten eraginez. Baina pasa zitzaion. Edo ez erabat... Duela urte eta erdi magia itzuli zen bere bizitzara, eta orduz geroztik zaletasunak harrapatuta bizi da.

Urte eta erdian lan asko egin duzu. Esate baterako, Youtuben kanal propioa daukazu

–**Telmotrenadotv**–. Betidanik gustatu izan zait bideo edizioa [ikus-entzunezko komunikazioa ari da ikasten], eta Youtubeko kanala aukera paregabea zen bideo edizioa eta magia uztartzeko.

Eta dagoeneko 150 bideotik gora eta 12.000 jarraitzaile baino gehiago daukazu.

Bai, eta bitxiena da jarraitzaile gehienak Latinoamerikakoak direla, % 80 inguru: Kolonbia, Guatemala, Mexiko...

Gainera, aukera ematen diezu galderak bidaltzeko.

Bai, eta orain arte saiatu

naiz denei erantzuten, baina gero eta zailagoa egiten zait, gero eta galdera gehiago iristen zaizkidalako. Atal berri bat ere sortu dut, *Galderak eta erantzunak*. Nahi dutenari buruz galde dezakete, eta nik kamera aurrean erantzuten dut.

Zure kanaleko berezitasunetako bat da jokoa egin eta ondoren, beste bideo batean, trukoak esplikatzea.

Duela urtebete hasi nintzen formula horrekin. Hasieran, magia erakustaldiak bakarrik eskaintzen nituen bideoan. Baina ohartu nintzen jende asko zegoela ez zeukana aukera edo denbora magia ikasteko, ezin zuena ikastaro bat ordaindu edo liburu edo DVD bat erosi. Nik pentsatu nuen aukera ona izan zitekeela ikasitakoa erakustea, eta hasi nintzen trukoak esplikatzen. Baina garbi utzi nahi dut nik erakusten dudana oso oinarrizkoa dela.

Baina ez da batere ohikoa mago batek trukoak esplikatzea hain modu irekian. Horrek ez al dizu arazorik sortzen?

“Pentsatu nuen aukera ona izan zitekeela ikasitakoa erakustea, eta hasi nintzen trukoak esplikatzen”

Irizpidea oso garbi daukat, mugak non dauden badakit. Nire helburua didaktikoa da, jendeari zaletasuna piztea. Ez dut dena erakusten, oinarrizko kontuak baino ez. Adibidez, lau bat hilabete daramatzat Donostiako elkarte batera joatean. Hilean behin biltzen gara mahai baten bueltan gure zalantzak eta zailtasunak konpartitzeko eta elkarrekin ikasteko. Han hitz egindakoak ez ditut Youtuben azaltzen.

Zeuk nola ikasi duzu? Ba al dago mago izateko ikastarorik?

Neure kabuz ikasi dut. Interneten material asko dago, eta orduak eta orduak eman ditut bideoak behin eta berri ikusten, liburuak irakurtzen... Eta orain Donostiako elkarte horretan aukera eman didate bazkide egiteko. Han astean behin beste mago batzuekin bildu eta elkarrekin ikasteko aukera dago.

Aurrera begira, magiarekin zer asmo daukazu?

Oraintxe bertan asko betetzen nau magiak. Oso gustura nabil. Zaletasun modura hartu dut orain arte. Duela aste batzuko publiko aurreko nire lehen ikuskizuna egin nuen, Gaztetxean, eta jendeari asko gustatu zitzaion. Neu ere oso gustura egon nintzen. Hogei bat minutuko saioa izan zen eta motz egin zitzaidan, gehiago nahi nuen. Etorkizunean, gauzak ondo badoaz eta ondo landuz gero, agian aukera egon daiteke maila profesionalean etekina ateratzeko.





Magia oso eremu zabala da. Zuk kartak erabiltzen dituzu, batik bat.

Magia mota asko daude, bai. Gertukoa eta agertokikoa bereiz daitezke, adibidez. Erakustaldi batzuk oso ikusgarriak dira eta muntaia handia eskatzen dute. Nik, oraingoz, gauza txikiekin egiten dut, kartekin, batik bat. Baina Gaztetxeko saioan ohartu nintzen agertoki batean beste indar bat izan dezaketela truko konplexuagoek.

Zein dira zure erreferentziako magoak?

Mitikoen artean, hor dago Tamariz; baina badaude mago oso gazteak, nire adin ingurukoak, asko gustatzen zaizkidanak; Calen Morelli edota Patrick Kun, esate baterako.

Zenbat denbora eskaintzen diozu magiari?

Egunean zehar ez ditut ordu asko ematen joko jakin bat praktikatzen.

Denbora asko pasatzen dut karta sorta eskuan, beste zerbait egiten ari naizen bitartean, kartak nahasten, mugitzen... Oinarritzko teknikak lantzen. Eta gero, noski, joko bat ikasi nahi dudanean buru-belarri jartzen naiz horretan. Baina motxilan beti daramat karta sorta bat.

Zure lehenengo jokoak etxekeoren aurrean egingo zenituen...

Eta dagoeneko gurasoak eta arreba aspertuta daukat... Horixe da, hain zuzen ere, aholkatzen dutena: inguruko jendea ez saturatzea. Baina normala da segurtasuna lortu arte etxekeekin probatzea.

Lagunek eskatzen al dizute magia egiteko?

Bai, koadrilakoek, edo taberna batean zaude eta eskatzen dizute jokoren bat egiteko... Hori nahikoa normala da, eta ondo dago, giro ona sortzen du.

“Izugarri gustatzen zait ikastea, besteek egindako jokoak aztertu eta ikustea nola landu duen”

Zuek jokoa egiten duzue, baina magia ikuslearengan piztu behar da. Hori ez da erraza izango.

Ikusleari une batez sentiarazi behar diozu magia hori benetan existitzen dela, nahiz eta jakin ez dela egia. Une batez ikusleari magia biziartzat da magoaren erronka. Hori lortzeko betetzen zaitu. Parean daukazu ikuslea eta

aurpegian nabaritzen diozu harrিতa dagoela. Momentu hori oso polita da.

Eta zuk harrapatzen al dituzu beste magoen trukoak?

Batzuk bai, baina beste asko ez. Joko askok oinarrian truko berbera edo oso antzekoa daukate, nahiz eta gero istorio ezberdinekin jantzi. Baina izugarri gustatzen zait ikastea, besteek egindako jokoak aztertu eta ikustea nola landu duen. Gozatu egiten dut.

Zure kanaleko azken bideotako batean ikusi zaitugu mugikorreko aplikazio bat erabiltzen magia egiteko. Teknologia berriak ere iritsi dira magiara.

Teknologia berriak gure bizitzetan oso presente daude eta zergatik ez aprobeatzen magiarako? Nik bospasei aplikazio daukat, baina garatzeko bide bat dago hor. ■



Bideoak: karta jokoaren trukoaren azalpena

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



EKAIN

SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA

ERROTA
ORIL-OKINDEGIA
SANTILXO AUZOAN, 32
20750 ZUMAILA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errotta@errotta-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu sarekontua
konpromisorik gabe.
DOAN



Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Galdona



burdindegia

Mendaro mendiola, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

ZATOZTE

zatozte.bakailaudenda@gmail.com

Juan Belmonte 4 behe 20750 Zumala

TF 943865393

Egin zaitetz
BALEIKEKO
bazkide



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391



ARGAZKI ESTUDIOA | ESTUDIO DE FOTOGRAFIA

www.goizargazkiak.com | goizargazkiak@gmail.com
Txomin Agirre kaia, 2 behea

Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

HAUR DANBORRADA **25** URTE

“EURIA GURE BETIKO OBSESIOA IZAN DA”

TESTUA: IZASKUN URBIETA
ARGAZKIAK: JAKINTZA KULTUR ELKARTEA ETA
ARNAITZ RUBIO APREA

BALEIKE +

1990eko santelotan atera zen lehen aldiz haurren danborrada Zumaiako kaleetatik barrena. Egun eguzkitsu eta beroa izan zen, sargoria. Ordutik, ordea, euria egin du, askotan, eta danborrada egunean gehiegitan, ziur aski. 25. urteurrena berezia izango da askorentzat, eta batez ere, egun ilunetan ere, argi izpia sortu duten pertsonentzat; fundatzaileentzat, eta Jakintza Kultur Elkarteko partaideentzat.



ANTOLATZAILEAK *Gema Alkorta eta Maria Jesus Elosua fundatzaileak, Nerea Hernandez eta Juan Carlos Apazaola laguntzaileekin, entseguan.*

Gema Alkorta eta Maria Jesus Elosua dira haurren danborrada lehendabiziko aldiz ateratzearen "errudunak". Urte hauetan guztietan, ilusioarekin, gogoarekin eta sentimenduarekin lan egin dute. Baina bide horretan ez dira bakarrik egon. "Kolaboratzaile talde paregabea daukagu gure ondoan, beti laguntzeko prest izan direnak, baina egia da, 25 urte hauetan, Gema izan dela bakarra, beti, hor izan dena", adierazi du Maria Jesussek. Ibilbide horretan, eta 1997. urtetik, Nerea Hernandez dute bidelagun. "Izugarrizko lana ari da egiten argazkiekin; urte hauetako guztietako irudiak biltzen, sailkatzen eta ipintzen", gaineratu du Maria Jesussek. Izan ere, Nerea arduratu da apirilaren 16tik maiatzaren 4ra Oxforren ikusgai egongo den erakusketa ederra muntatzeaz. Iraganetik orainera jauzi egiten.

Hala, jauzi egin, eta debuteko urtera igaro gara. "Nire semeekin batera, eta Maria Jesus bere ilobekin, urteroko ohitura genuen San Sebastian egunez haurren danborrada ikustera joatea Donostiara, egun pasa. Horrela, behin Maria Jesussek zera komentatu zidan: 'Zergatik ez dugu Zumaian horrelako danborrada bat sortzen?'. Nik harrituta begiratu nion", esan du Gemak. "Aurretik, Donostiako Aste Nagusiarekin batera, Zumaian ere Aste Nagusia ospatzen zen, eta orduan, haurren danborrada bat egiten zen, militar jantziekin, baina urteak ziren ez zela egiten", gaineratu du Maria Jesussek. "Horregatik, ideia polita iruditu zitzaidan santelmotan haur danborra ateratzea. Hala, Angel Goikoe-

txea *Goikori* komentatu egin nion", bukatu du Maria Jesussek. "Angeli esango zeniola komentatzean, ni ere animatu egin nintzen. Banekien Angelek danborrada bat eramaten bazekiela, eta horrek lasaitu eta animatu egin ninduen, era berean", aipatu du Gemak.

Hutsetik hasi beharra

"Ez geneukan ezta makil bakar bat ere...", gogoratu du Maria Jesussek. "Dena galdetu egin behar genuen: nondik ekarri danborrak eta barrilak, zenbat pertsonak jotzen duten...". Batekin eta bestearekin hitz egin, eta azkenean Getariatik, Zarautzik eta Azpeititik ekarri zuten beharrezko materiala. "Horiez gain, Maria Luisa Goikoetxeak, adibidez, lehen egiten zen danborradako danbor batzuk eman zizkigun, urdin batzuk".

Horrela, ezjakinean baina guztiz animaturik, eta Udalaren babesarekin, lehen entseguak egiten hasi ziren. "Eskola guztietara joan ginen danborradaren berri ematera, umeak animatzera, eta Arrangoletan hasi ginen entseatzeko", adierazi du Gemak. Orduetik, entsegu leku dezente pasa dituzte. Hala nola, Goiko plaza edo Azoka plaza zena, Julene Azpeitia eskola, Maria eta Jose ikastetxea, Institutua, Alondegia eta, gaur egun, Mojaxarren Komentua. "Azken entseguak herri eskolan egiten ditugu, bandarekin batera".

Hasieratik ume asko izan zituzten. "Parte hartze handia izan digu, eta horrek poza ematen digu. Egun zen garai bat

jaitsi egin zena, baina, orokorrean, oso ondo ibili gara”, esan du Gemak. Gainera, ildo horretatik, gurasoek beti lagundu diete eta ez dute arazorik izan. “Badira 3 urte argazki lehiaketa antolatzen duguna, eta horretarako ere, haurren irudia babesteko legea betetze aldera, baimen bat betetzeko eskatzen diegu, eta inork ez digu arazorik sortzen, eskertzekoa da”, aipatu du Nereak.

Parte hartzea ere auzoetara sustatzeko, orain 3-4 urte Oikiara hasi ziren joaten. “Bestela, hango umeak ez ziren etortzen, edo gutxi ziren animatzen zirenak. Orduan, erraztasuna emate aldera, gu joango ginela esan genien. Larunbat goizetan entseatzan dugu han, beraiekin. Aurten, 11 dira izena eman dutenak, eta oso gustura ibiltzen dira”, esan du Gemak.

Errepertorioa

“Angelek erakutsi zien umeei danborra jotzen”, aipatu du Gemak. “Urteekin utzi egin zuen, eta nik hartu nuen ardura hori, baina denok Angelen eskola daukagu”, aitortu du. “Beregatik ez bazen, ez zen danborrada aterako, ziur”, gaineratu du.

Hasierako urte haietan, entseguak egiteko orduan, zuzeneko musika izaten zuten. “Saxofoia jotzen zuen norbait etortzen zen abestiak jotzera: Balbino, Tapia, Javier, Juan Ramon, Gualdino...”, gogoratzen dute. Geroago, urte gutxi batzuk pasa ondoren, kantak grabatu egin zituzten, eta horrekin kaseteak saltzen jarri zituzten. “Dirua ateratzeko ere bide bat izan zen”, esan du Gemak. “Baina egia esan, musika zuzenean izatea luxu handia zen, eta oso ongi etortzen zitzaigun, gainera. Izan ere, abesti baten zati bat gaizki ateratzen bazen, hori errepikatze eskatzen genien”, gaineratu du. Gaur egun, CD batean dute musika guztia, eta hori erabiltzen dute entseguetan. “Azken entseguan, orokorrean, banda osoa etortzen zaigu”.

Baina abestiei dagokionez, aldaketa kuantitatibo nahiz kualitatiboa izan du haur danborradak. “Hasieran, batez ere, Donostiako danborradako abestiak eta “San Telmo martxa” jotzen genituen, baina urteekin, guretzat sortutako kantak eskatu genizkien konpositoreei”, esan du Maria Jesusek. “Horrela, hiru konpositorek, abesti bana sortu zizkiguten: ‘Gure Polka’, Jose Luis Francesena azpeitiarrak; ‘Gora Zumaia’, Txomin Mujika elgoibartarrak; eta ‘Kalez kale’, Iker Gonzalez zumaiarrak”, kontatu du Gemak.

Eguraldiaren beldur

Santelmoak zerbaitegatik ezagunak bada, euriarengatik eta errepikapengatik dira. Inguruko herrien inbidia gara errepikapenak ditugulako, eta festak euririk



gabe direnean, zerbait falta delako sentsazioa dute hainbat herritarrek. Baina haurren danborradako arduradunek argi azaldu dute fenomeno meteorologiko horren beldurra, “urteroko gure obsesioa da”, aitortu du Maria Jesusek. “Beti arrautzak ematen genituen Zarauzko Santa Klara komentura, baina gogoratzen dut urte batean, bi tokitara eraman genituela; izan ere, batzuek zalantzak zituzten zeini eman behar zitzaien erabakitzerakoan: hala, Santa Klarara eta Karmelitei eraman genizkien. Uste dut euri gehien orduan egin zuela”, gaineratu du Gemak barez.

Zoritxar horien gaintik baina, Nereak baieztatu duen moduan, “inoiz ez da danborrada egin gabe utzi. Orduz aldatu dugu, egunez ere bai, baina beti irten gara”. Arrazoi horrengatik, gainera, aldatu zen haur danborrada egunez. “Hasieran, errepikapenetako igande eguerdian ateratzen ginen, baina batzuetan hainbeste asteburuz aldatzen zen, festetatik oso kanpora edo urruti geratzen zen. Horrengatik, lehengo igandera aldatu zen. Eguraldi txarra ateraz gero, errepikapenetako igandea izateko”, amaitu du.

“Hiru konpositorek abesti bana sortu zizkiguten: ‘Gure Polka’, ‘Gora Zumaia’ eta ‘Kalez kale’”



18. orrialdean jarraitzen du.

Gure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bisá tel. 943 143 334

API
Ibaigain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, beheá
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rjazcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo
Optika

Kantauri plaza, 8. Zumaiá. Tel. 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. Tel. 943 85 19 84

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIÁK

Angelos Soratu, 2
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa 943 430 637

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armarin enpokatutak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheá
Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI
ZUMAIÁ



943 862 083

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

Zaia

Pintxoak eta otartekoak



Txomin Agirre Kala, 8

KABI Paketa Eteazarrata, 15
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZH-rekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

PAPER diseinu grafikoá

Roberto Gutierrez
696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Kresala
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869



Hamaika **karroza** ezberdin

“Lehenengo karroza 1993. urtean atera zen”, gogoratu du Nereak. Hasierako hura, itsasoko izar handi bat izan zen, eta ordutik, itsasoari edo Zumaiari buruzko gairen bat egin dute. Karroza egin eta muntatzeko, lagun askoren sakrifizioa eta lana izan dute oinarri. Pertsona asko pasatu dira urte hauetan guztietan lan hau egiten, baina norbait aipatzekotan Juan Clamades Blanco, Agustina Amas eta, gaur egun, Blas Elizburu eta Bego Blanco dira.

“Horietaz gain, garrantzitsua da gogoratzea karroza hauek egiteko beraien lokalak utzi dizkiguten pertsonak, eta nola ez, urte hauetan guztietan traktorea gidatu duten Santaklara baserrikoak”, aipatu dute.

Denetarik egin da. Ideia bat egiteko, hauek izan dira aipagarrienak: itsasoko izarra, olagarroa, Zumaiako itsasargia, San Telmo ermita, Flysch-a, Kofradia, trainerua... “2010ean Bob Sponja marrazki biziduna egin zen. Ez du, ez itsasoarekin eta Zumaiarekin zerikusirik, baina arrakasta gehien izan duena da. Ume guztiak liluraturik geratu ziren”, aipatu du Nereak.



LEHENENGO URTEAK

1990. urtean hasi ziren santelmoetako umeen lehen danbor eta barril soinuak entzuten Zumaiako kaleetan. Hemen duzue, Alondegian ikusgai egongo den erakusketako argazki bildumen laburpen bat. Erakusketa, apirilaren 16tik maiatzaren 4 arte egongo da zabalik.





AGUSTIN **ZUBIMENDI** eta ISAAK **ARANBERRI**HAUR DANBORRADA KO
LEHEN KIMUAK

Agustin Zubimendi eta Isak Aranberri, bata bestearen atzetik, haur danborradako lehen zuzendari nagusiak izan ziren. Handik hasitako bidea pixkanaka erein, eta urteetan helduen danborrada ere gidatu zuten. Danbor soinuak eta erredobleak, beraien bizitzako zati handi izan dira. “San Telmo martxa”, berriz, bihotzean taupada egiten jarraitzen dien abestia.

Zenbat urterekin hasi zineten zuzendari? Agustinen kasuan, zuzenean, zuzendari lanetan hasi zinen, ezta?

Agustin Zubimendi: Bai, hala da. Haur danborrada 1990. urtean hasi zen, eta ni urte horretan eta hurrengoan izan nintzen zuzendari. Orduan, orain baino zaharxeago hasten ginen errezeloa dut. Nik, behintzat, 16 urte nituen.

Isak Aranberri: Nire kasuan, 1991. urtean hasi nintzen danborra jotzen, 10 urterekin. Hurrengo urtean, zuzendari jarri ninduten, eta hala, 4 aldiz aritu nintzen zeregin horretan. Hau da, 1992tik 1995era. Gero, 1996an, zaharren danborradara pasa nintzen, 15 urterekin.

Nolatan jarri zineten lan honetan?

Isak Aranberri: Urtebetez bakarrik jo nuen danborra, 1991an. Hurrengo urtean, lehenengo entseguan, Angel Goikoetxeak, *Goikok*, aulki baten gainean jotzeko esan zidan. Bigarren entseguan, ea makilarekin ausartu eta zuzendari izan nahi nuen komentatu zidan. Halaxe egin nituen beste lau urte.

Agustin Zubimendi: Gema eta Maria Jesus nire aitarekin koruan zebiltzan. Ni ere ezagutzen ninduten, eta, gainera, musika ikasten ari nintzen garai hartan. Hori izan zen ni aukeratzeko arrazoia. Haur danborrada prestatzen ari zirela esan zidaten, eta musikaz, erritmoaz... zekien norbait behar zutela, eta nigan pentsatu zuten.

Zeinek erakutsi zizuen? Zuzendari lana makilarekin baita...

Agustin Zubimendi: Niri Angelitok, *Goikok*, erakutsi zidan. Ez da askorik aldatzen, baina bai jakin behar da makilarekin mugitzen, eskuak altxatzen, mozketak egiten... Gainera, gogoratzen naiz makila nahiko astuna zela!

Isak Aranberri: Niri ere bai, Angelek. Nik danborra jotzen lehenengo urtean ikasi nuen, gero zuzendari jarri nindutenean, makila nola erabili erakutsi zidan.



Urteekin, kantak aldatu direla pentsatzen dut. Zuek, zein jotzen zenituzten?

Agustin Zubimendi: Danborrada hutsetik hasi zenean, batez ere, Donostiako danborradako kantak jo genituen: “Tatiago”, “Diana”, “Iriyarena”, “Polka”... eta noski, gurea, “San Telmo martxa”. Baina, pixkanaka, antolatzaileak Zumaiako danborradarako abesti berriak eskatzen hasi ziren konpositoreei. Eta hortik datoz adibidez: “Gora Zumaia”, “Gure Polka”, “Telmo Deun”, “Kalez kale”...

Isak Aranberri: “Gure Polka” izango zen sortu zen lehenengo. Ni gogoratzen naiz nola esan zidaten pieza berri bat egin zutela, eta ni zuzendaria nintzenez, entseguen aurretik, Gemaren etxera joan eta ikasten ibili nintzen.

Eta danborrada eguna? Nola gogoratzen duzue?

Isak Aranberri: Nik danborrada egunak euriarekin lotzen ditut beti. Zuzendari izan nintzen urte guztietan danborrada atzeratu egin zen euriaren ondorioz.



Agustin Zubimendi: Nire kasuan, aldiz, aurreneko urtean, izugarrizko beroa egin zuen. Eguzkiak bete-betean jotzen zuen.

Isaak Aranberri: Bai, askotan komentatzen zuten antolatzaileek aurreneko urte hura. Nire garaian, aldiz, ziur nago ez zela inoiz errepikapenetako igande eguerdian atera. Bartzuetan arratsaldera pasa zen, besteetan hurrengo igandera. Baina aurreikusitako egunean eta orduan, inoiz ez. Ni, ume bezala, antolatzaileak entzuten nituen esanez atera egin behar zela; bandakoak, berriz, instrumentuak busti egingo zirela... Ez dakit, oraindik umea zara eta ez duzu erabaki horren ardura, esaten dizutenari itzarotea besterik ez zaizu geratzen.

Agustin Zubimendi: Ez dut urduritasunaren oroitzapenik. Aurreneko danborrada izanik, pentsatzen dut ondo ateratzeko kezka hori izango nuela nire barnean, baina ez naiz askorik gogoratzen. Zaharren danborrada, aldiz, gertuago dut, eta gauerdian, “San Telmo martxa” jotzea, kofradia guztia beterik dagoenean, izugarrizkoa da. Biak momentu ezberdinak dira, bi danborrada ezberdin dira.

Gogoratzen duzuen anekdotarik?

Isaak Aranberri: Nik, lehenago aipatu dudan moduan, eurria izan zen nire lau urtetako anekdota nagusia. Izan ere, ez ginene inoiz ordurako atera. Bestalde, gogoratzen naiz nire aita, ni zuzendari izan nintzen lehen urtean, ez zela ikustera joan lana edo zereginen bat zuelako. Amari, berriz, denak galdetzen omen zien ea gizona non zuen. Handik aurrera, hurrengo hiru urteetan hor izan zen (barrez).

Agustin Zubimendi: Nik anekdota edo zerbait berezia eta polita bezala gogoratzen dut ume baten emozioa. Entsegu guztietan eta, noski, danborrada egunean ere bai, “San Telmo martxa” jotzen genuen bakoitzean, negarrez hasten zen. Helduen danborradan ere berdina egiten zuen eta ziur nago, oraindik ere, abesti horrekin emozionatu egiten dela.

Kantarik gustukoena edo bereziena?

Isaak Aranberri: Helduen danborradan nenbilela, Debako martxa sartu nuen. Ez dakit non entzun nuen abestia, baina asko gustatu zitzaidan. Zuzenean bandakoei galdetu nien ea bazekiten kanta hori jotzen, eta baietz esan zidaten. Ordutik jo egiten da, bai umeen eta helduen danborradan, eta badakit jendeari ere gustatzen zaiola. Eta beno, txikitatik, “San Telmo martxa”, noski, izan da bereziena.

Agustin Zubimendi: Ni ere “San Telmo martxa”-rekin geratzen naiz. Pentsatzen dut abesti horrekin guztiok emozionatzen garela, bai jotzen dutenak, baita herritarrak ere.

Amaitzeko, haur danborradatik helduen danborradara pasa zineten. Zer eman dizue kultur ekitaldi horrek?

Agustin Zubimendi: Beti ibili izan naiz musika arloan gustura. Abesbatzan abesten, adibidez. Aukera eman zidaten lehenengo aldi hartan ateratzeko, eta gero jarraitu egin nuen. Helduen danborradan, esaterako, 6 urtez ibili nintzen. Sanpedrotakoan ere jotakoa naiz. Herriko hirurak pasa ditut.

Isaak Aranberri: Ni oso parte hartzailea izan naiz beti. Danborrada ez bazen, umeekin euskal dantzak; bestela, herri bazkarian, jolasak antolatzen. Txikitik hasi eta helduenean jarraitu nuen, oso gustura. Guztira, 12 urtez ibili nintzen helduen danborradan ere.





kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaia plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatexea • taberna

oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO c.b.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com



Nikol
taberna

Amaia plaza 943561516

MARGARI Aruta-denda

Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

ETXEGINTZA

OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura

678 875 652
943 143 093
lu@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Fabrikak
Telokak
Etebiziak
(Sakalzak, balmugak)
Indusien mantentzeak
Mota guztietako igelberritze lanak

Etebiziaren inspezio teknikoak (ITE)
Zerifikatu energetikoak
Fabrikaren diseinua eta aholkularitza
Etebiziaren berridazkuntza
Mota guztietako proiektuak

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kuxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltozia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



Inoiz ahaztuko ez diren istorioak

Mende laurdeneko bizitzan, ahaztezinak diren kontu, istorio, pasadizo eta anekdotak gertatzen dira. Galdetu, bestela, 25 urte beteko dituen gazte bati. Hori dela eta, haurren danborradak baditu kontatu gabe gelditu ezin diren momentuak. Esaterako, materiala gordetzen zuten tokia. Maria Jesusek kontatu duenez, “entseguak egiteko lekua bagenuen, baina, noski, behin danborrada amaitutakoan, non gorde material guztia? Gogoratzen dut urte batzuetan Oiartzunetxean gordetzen genituela, Maria Pilar Beobidek utzitako tokian. Jakintza elkartekook ere han biltzen ginen, eta lekutxo bat egin zigun”.

Aipatzeko moduko beste pasadizoa bandera batek du gordeta. “Lehen urtean hiru bandera eraman ziren, eta horietako bat Zumaiakoa zen. Irudia bordatzea 25.000 pezeta kostatu zitzaigun”, aipatu du Maria Jesusek. “Gogoratzen naiz Jadarre auzoan bizi zen emakume batek egin zuela, eta gu astero joaten ginen galdetzera ea nola zihoan lana”. Gaur egun, 7 bandera ateratzen dituzte.

Istorio polit bat ere badu danborradak. San Telmo egunean, zaharrei bisita egitera joaten dira haurrak. “Hasieran, San Juan egoitzara joaten ziren, eta orain Otezurin jotzen dute”, kontatu du Nereak. “Ez da derrigorrezkoa joatea, baina egia esan, asko animatzen dira, eta bertako zaharrei izugarritzko ilusioa egiten die”, gaineratu du.

Omenaldi estimatua

Urte berezia izanik, omenaldi bat egitea pentsatu dute ardura-dunek. Hala, aurten, danborrada egunez aldatu, eta larunbat arratsaldean aterako dira, apirilaren 26an. “Kofradian egingo dugu omenaldia, bertan haurrek joko dute eta guk, 3 konpositoreei eskertza emango diegu”, esan du Maria Jesusek. “Horretaz gain, urte hauetan guztietan zuzendari izan direnak ere etorriko dira, eta denen artean, ‘San Telmo martxa’ joko dute”, jarraitu du Nereak.

Harro daude urte hauetan guztietan egin duten lanaz, eta umeen ilusioa sentitzeaz. “Ia herriko ume guztiak pasa dira gure taldetik, eta harro egoteko modukoa da, bai”, adierazi du Gemak. “Umeek dena ekartzen dute beraiekin: emozioa, ilusioa, urduritasuna, gogoia. Horretaz gain, gurasoak, aitona-amonak, familia..., denak egiten dira partaide”, esan du Maria Jesusek.

Aitortu dute danborradaren eguna bera urduri pasatzen dutela guztiek; bai haurrek, baita antolatzaileek ere. Baina ezin dute ukatu emozioz beteriko uneak direla. Kaleak berriro ere danborren eta barrilen doinuez josiko dira “Gure Polka”, “Kalez kale”, “Gora Zumaia”, “Debako martxa”, “Hau dek hau”, “Telmo deun berria” eta “San Telmo martxa” jotzen dutenean. Guztira, 10 ume joango dira karrozan; 40 baino gehiago arraun, otar eta abarrekin, 14 pertsona banderekin; 67 danbor; 81 barril; 2 zuzendari eta 35 kolaboratzaile. Burrunbak, erredobleak eta bihotz taupadak, denak bat! ■

“ELIZAK HERRIAREKIN BATERA JOAN BEHAR DU ALDATZEN; HORI DA NIRE DOGMA”

Pasai San Pedron 1929an jaioa, bere 85 urteetatik (apirilaren 13an beteko ditu) 40 Zumaian egin ditu Joxe Etxeberriak. Iazko San Pedro jaietan eman zion Zumaia herriak agurra eta ordutik Donostian bizi da, Apezpikutzak duen etxe batean. Ez du, baina, Zumaia ahaztu. Bertan ditu lagunak, koadrila, eta noizean behin elkartzen dira bazkari baten inguruan. “Gustura egon naiz ni Zumaian, eta azkeneko urteak izan dira onenak”.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

“Nik ez daukat inongo mezurik emateko!”, dio *Baleikeko* koadrila ikusi eta berehala. Artzai Onaren katedralaren atzealdeko eserleku batean eserita aurkitu dugu Joxe Etxeberria, egunero bisitatzen duen Koldo Mitxelena kultur zentroaren aurrean. Iazko ekainean Zumaia utzi zuenetik Donostiako Apezpikutzak katedralaren alboan duen eraikin batean bizi da beste hamar lagunekin batera. “Laugarren pisuan bizi naiz. Ikusten duzu leihoak irekita dituen hura? Ba, hantxe. Ni laugarrenean bizi naiz, ‘beste hori’ bigarrenean. Guk ez dugu hura ikusten. Gabonetan igo zen bisita egitera eta egun horretan ez nengoen”. “Beste hori” Jose Ignacio Munilla apezpikua da. Elkarrizketan zehar sarritan aipatuko du, baina inoiz ez bere izena. Fin-fin esateagatik, Don Josek (hala ezagutzen genuen ikastola garaian, bera baitzen gure erlijioiko irakaslea) ez du apezpikua oso gogoko. Elizaren eta oro har bizitzaren ikuspegi oso kontrajarriak dituzte.

Arraunzalea eta arraunlarien familiakoa izan da Joxe: “Ikasle nintzela herriko festetan arraunean ibilitakoa naiz, anaiekin batera, eta gure aitak bost urtez jarraian irabazi zuen Kontxako bandera”. Jaiotzatik ezagutu du itsasoa etxean, aita arrantzalea zuelako. “Halako parajeetan jaio nintzen, besterik ez zegoen, ura eta itsasoa”. Zumaia hainbat traineru eta es-

tropadetan irabazitako bandera ugari bedeinkatu ditu. “Zumaia urte oso onak izan zituen. Txantxetan esaten nuen nire bedeinkazioengatik izango zela. Baina mutil koadrila ederra zuen. Itsasoan indarra behar da, pilotan bezala. Pilotari polita dela diote, baina indarrak ez badu...”.

“Baina zer galdetu behar didazue”, galdetu du. Irribarrea sumatzen zaio aurpegian. “85 urte hauetan lehen aldia da elkarrizketa bat egiten didatela”. Atzealdean katedrala duela argazkiak atera ondoren, Koldo Mitxelenarantz zuzendu gara. Bertan utzitako gela batean elkarrizketatuko dugu Joxe. “Eta zer egiten duzu hemen? Egunkariak irakurri?”, galdetu diogu. Muturra okertu du. Sumina igartzen zaio. “Egunkariak irakurri? Zertarako? Gezurrak besterik ez dituzte-eta esaten! Filosofiako konferentziak entzuten egoten naiz. Bertako langileek diskoak jartzen dizkirate eta lasai egoten naiz haiek entzuten”.

Herrian zabaldu da Joxe elkarrizketatzeko asmoa dugula eta hainbat herritarrek eskumuinak emateko eskatu digute. “Jende askok maite edo, behintzat, errespetatzen zaitu, baita sinestunak ez direnek ere”, esan diogu. “Ba al dakizu zer behar den horretarako? Pertsona irekia izatea, eta beti saiatu naiz irekia izaten”.



Iazko sanpedrotan jaso zenuten zuk eta Joxe Mari Larrañaga Txortanak herriaren despedida. Nola gogoratzen duzu?

Despedidan bi edo hiru hitz esan nituen, besterik ez. Joxe Mari bezala hasiko banintz, akabo, oraindik han egongo ginateke! Joxe Mari Seminarioan dago, eta nahiko ondo dago. Ni hemen nago, Apezpikutzak duen etxe batean; hamar lagun bizi gara hemen eta gauza guztiak gertu ditut. Askatasun gehiago ere izaten dugu. Goizean hona [Koldo Mitxelenara] etortzen naiz eta arratsaldean paseotxo bat ematen dut. Igande goizetan meza entzuten dut telebistan eta noizean behin arrebarekin elkartzen naiz kafe bat hartzeko. Arreba eta bi anaia hemen bizi dira, Donostian, eta igandero bazkaltzen dut arrebarekin.

Ordutik mezarik eman al duzu?

Enkargu bat edo beste izan dut. Azkue familiaren ezkontzaren 50. urteurrenean izan nintzen, baita Agustín Etxaberen aldeko mezan ere. Nik Zumaian lagunak egin ditut; hemen, berriz, ez dut inor ezagutzen. Gustura egon naiz ni Zumaian eta azkeneko urteak izan dira onenak. Telefono bidez mantentzen dut batzuekin kontaktua eta han daukat oraindik nire koadrila: Mendizabal mekanikoa,

Etxabe... Noizean behin elkartzen gara bazkaltzeko Aitola Zarren, Azkoitian. Zarautzen, San Pelaion ere elkartzen gara hiru lagun bazkaltzeko.

Zu al zara familiako apaiza bakarra?

Bat eta sobran!

Erantzunarekin barrez hasi da, baina hiru hitz horietan bestelako zerbait suma daiteke: Elizarenganako kritika. El-karrizketan zehar sarritan entzun ditugu Eliza Katolikoaren hierarkiaren aurkako kritikak, baita Elizak zer izan beharko lukeen ideiak ere. Pertsona irekia eta progresista izanik, Joxe ez dago gustura Elizaren buruzagien ideia kontserbadoreekin. "Apezpikuarekin eta hierarkiarekin dagoen arazoa ez bada aldatzen, ez dago zer eginik. Beste hura [Rouco Varela, Espainiako apezpiku-batzarraren presidente ohia] joan da. Hark ekarri zuen hau hona. Antzerakoak dira. Hauek erlijiosoak baino gehiago politikoak dira. Abortuaren gaian edo bestelakoetan Madrildik esaten dena honek bete egiten du. Eta gainera diote hori dela Jainkoaren hitza".

Beste batzuek diote Elizak esandakoa egiten dutela politikariek.

Bastante. Beti eraman dira ondo Eliza eta boterea. Dirua, bankuak, mass media, Eliza eta ejertzitza bat dira. Eskuina da eta eskuina ez da sekula konbertituko. Oso zaila da. Niri lagun batek zera esan zidan: “Begira Joxe, badira mundu honean Jainkoak konponduko ez dituen bi gauza. Bat: tronbosia sendatzea. Bigarrena: karlista bat bide onera bihurtzea. Inpossible!”. Nik ez dakit zer gertatuko den, baina gauzak aldatzen ez badira, jai dago. Eta gauzak herriak aldatuko ditu, eta herriak gaztediak. Harritura nago zer gaztedi ona dagoen, bai herriak, baita kanpoan ere. Gaztedia kezkatuta dago, eta ez bakarrik politika mailan, baita kulturaren edo kirol mailan ere, eta hori oso positiboa da. Hori da benetan sekularra izatea. Mundutarrak izan behar dugu. Garai batean zioten mundua txarra zela. Gezurra! Mundua berez ona da. Edo ez duzue hala uste? Sexuarekin berdin, txarra dela diote.

Sexuaren gaia ateratzen duzunez, badirudi Eliza katolikoak sexua besterik ez duela buruan: abortua, homosexualitatea...

Horrekin atakutzen dute. Hori ez da ez ebanjelikoa, ezta ezer ere. Baratzainaren txakurraren esaldia datorrit burura: ez jan, ez jaten utzi. Halako zerbait gertatzen da hemen. Aldatzen ez bada, alferrik da. Elizak herriarekin batera joan behar du aldatzen. Hori da nire dogma. Herriak badu zentzu bat, zentzu on bat, egiarako zentzu on bat. Herria maneiatzen dutenek dute kulpa.

45 urte zituela etorri zen Zumaiara. Aurretik Usurbilen, Goierriko herri txiki batean eta Osintxun izan zen apaiz, Parisera filosofoa ikasketak egitera joan aurretik. Filosofia bere bizitzaren ardatz garrantzitsua da eta oraindik ere pentsalari batzuen teoriak entzuten egotea du gogoko: “Ezagutu nuen filosofo bat, Xabier Zubiri donostiarra, apaiz izandakoa, eta Julian Mariasek zioenez, ‘munduan gehien dakien gizona’. Sekulako pentsalaria zen, Kant eta Heideggerren mailakoa, eta hark unibertsitatean emandako klaseen grabazioa entzuten ditut egunero. Zoragarria da. Filosofoa, matematikaria, fisikoa, 22 hizkuntza zekizkien. Behin, Deustuko Unibertsitatean konferentzia bat eman zuen eta han joan nintzen. Hori zen jakitea! Ez entziklopedietatik ateratakoa, baizik eta sakonetik berak sortutako teoriak. Bestalde, zientziak gaur eguneko gizartearen duen eragina aztertzea ere gustukoa dut:



“Zergatik obligatzen zaio gizonezko bati, erlijioso izateko edo apaiza izateko, zelibea izatera? Horren ondorioak hor ikusten dira”

biologia, fisika... Eta aurrerapen horiek guztiek sor ditzaketen dilema etikoak hausnartzea ere bai.

Etikoak, eta ez erlijiosoak. Hor kontraesan bat egon daiteke.

Erljioa etikarik gabe ez doa inora. Hori da gaur eguneko erlijioa. Erljioa etikarik gabe ez da ezer, eta kristautasuna oraindik eta gutxiago.

Beraz, iruditzen zaizu Elizak, aldatzen ez bada, ez duela...

Etorkizunik. Hala da. Kargutik kendu zuten apezpiku batek liburuxka batean zera dio oso dotore: “Una iglesia que no sirve, no sirve para nada”. Horretara iritsi gara.

Elizaren baitan zu bezalako kritikoak izango dira.

Badira, baina desengainu handia hartu dut apaiz gazteekin. Denak beste honen inguruan dabilta.

Gogoan dut bat Munilla izendatu zutenean matxinada antzerakoa izan zela Gipuzkoako apaizen artean. Sinadurak ere jaso ziren izendapenaren aurka.

Handia izan zen. Orain ere beste gai baten inguruan ere sinadurak jaso dira. Baina beste hau ez da aldatuko; ez hau, ezta beste apezpikuak ere. Tolerantzia esaten da, baina tolerantziak ere bere neurriak ditu.

Baina Eliza Katolikoaren baitan mugimenduak sumatzen dira Aita Santu berriarekin.

Baita ere. Ari da zerbait egiten, baina badakizu Elizaren azpian zer dagoen. Eliza inkisitoriala izan da. Beti izan da boteretik hurbil. Dotoretasuna falta da Elizan.

Behin Parisen lizentziatura atera ondoren, eta Zumaiara etorri aurretik, arrantzale lanak ere egin behar izan zituen Joxe Etxeberriak aitarekin. “Osintxun apaiz nintzela arazoak izan nituen eta Guardia Zibila etorri zen etxera. Haren ondoren erabaki genuen hiru lagunek Parisera joatea ikastera. Ikasi nuen, ahalegindu nintzen eta atera nuen filosofian lizentziatura. Etorri nintzen, baina ez nuen posturik aurkitu. Zumaiako Kolegiara [Maria eta Jose ikastetxera] ere joan nintzen klaseak emateko asmotan, baina ezezkoa eman zidaten. Lanik ez eta aitarekin ibili nintzen itsasoan, Pasaian. Aita arrantzalea zen eta soldatutxo ematen zidan astero. Oso gogorra zen. Goizeko 5etan jaikitzen ginen egunero sarea



AZKEN MEZA

lazko San Pedro egunean azken meza eman zuten Joxek eta Joxe Mari Larrañagak parrokian.

botatzera. Jakin nuenean Joanito [Dorronsoro] sekulartzera zihoala, bikarioarekin hitz egin nuen eta hark esan zidan eginda zegoela. Eta hala etorri nintzen Zumaiara.

Joanito aipatu duzunez, zuk ez duzu inoiz tentaziorik izan? Apaiz izatea uztea, ezkontzea...

Bai horixe, krisialdi galantak izan ditut. Ni pertsona naiz, zu zaren bezala. Apaiz batek ezkondu nahi badu, ezkon dadila. Emakumeak apaiz bihurtzearen alde ere banago. Horretan irekia naiz. Gizonezkoak eta emakumezkoak osagarriak dira. Hori natura da eta hala sortu gara. [Emakumeen parte hartzearekin] Misterioa kontserbatzen da eta Jesukristok ekarritako mezu hori, fededunak bagara, mantenduko da.

Frankismoaren garaian hasi zinen apaizgoan. Zure ideiek talka egingo zuten, ba, garai hartan ere.

Horixe baietz. Apaizen talde handi batek gorde zuen bere bide zuzena eta ibilia. Garai hartan, 339 apaizek Francoren aurkako dokumentu bat sinatu genuen. Arazo horiek zirela medio soldaduskara bidali ninduten Logroñora, kapilau militar. Ez castrado ez castrador, castrense! [barreak] Han zegoen komandante batek galdetu zidan, gaztelaniaz, ea ni dokumentu hura sinatu zutenen artean nengo. Zer esango nion, ba... Esan zidan sinatu zuten guztioi txartel bat jarriko zigula ipurdian eta Vatikanora bidaliko gintuela. Militarren kasta... Han pasa nituen bi urte, alferrez graduazioarekin. Dokumentu hura, '339', nik pasa nuen BBC Londres eta Parisera. Garai hartan ez zegoen beste mediorik, ez hemen, behintzat. Gero

ETA eta halakoak sortu ziren. Nik ezagutu dudana pertsona jator eta normalenetakoa, garbia eta isila, izan da ETako bat: Argala. Parisen ikasten nengoenean laguna nuen. Erdaraz egiten zuen. Behin esan zidan: "Joxe, goazen paseatzera, goazen Jainkoaz hitz egitera". Paristik bueltan, enkargu baterako elkartu ginen eta esan zidan: "Joxe, ez ibili hemendik, zelatan daude eta". ETako beste kide batzuk ere ezagutu nituen, eta harreman hauengatik-edo batzuek gaizki ikusi naute. Behin zumaiar batek galdetu zidan ea HBko hauekin izan nintzen. "Eta zer? Zer dute, ba?", galdetu nion. "HBkoak izateagatik gaiztoak dira?". Denborarekin HBkoa izaten jarraitzen dut. Hori bai, denok, edozein, HBkook ere bai, aldatu behar dugu. Aurrera egin behar dugu. Ez dugu dogmatismoan erori behar. Azken batean, Platonek zioen bezala, dialogoaren bila joan behar dugu. Dialogorik gabe ez dago aurrerapenik.

Beti egon zara politikan interesatua?

Bai. PNVren inguruan ibili nintzen. Jose Antonio Agirre Lehendakariaren hiletan ere izan nintzen. Baina gero ez. Lagun bati esan nion ni ez nintzela eskuinekoa, ez ideia aldetik, ez tenperamenduz. Beti izan naiz ezkerrekoa eta hala izaten jarraituko dut. Hanka sartzen dudala? Denok sartzen dugu.

Setien Donostiako apezpiku zela eraso bortitzak jaso zituen Euskal Elizak. Nola bizi izan zenuen?

Garai hartan Apaizen Koordinakundea sortu genuen. Oraindik segitzen dugu eta lan ederrak egindakoak gara. Bost probintzietako apaizak biltzen ginen: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldekoak. Garai hartako jendea

Primavera pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

RUBIO Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

Talajaia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondok (hodilloa)
Salxitzak, oilaskoak...
Garagardok dukeron

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

Egin zaitez
BALEIKE
bazkide

GERRAKO BOST
DESAGERTU
ALIRIKITU ENTUZTE

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

UPELA PARABOTIKA
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturista, dietetika eta elikadura.

Upela plaza, 9
943 537 911
upelabelardenda@hotmail.com

Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net

BASADI 12
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax: 943016126

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

ESKERRIK ASKO
—
25 URTE ZUEKIN

%25
DESKONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

EDU
ZUMAIKO OPTIKA

Txomin Agirre 6, 20750
T 943 143 057
www.eduoptika.com

BERTSOAK JOXERI

Egilea: Unai Manterola
Doinua: *Pasaiaiko plazatik*

Pasaiaiko plazatik
Zumaia izkina,
Elizatik herrira
zerbitzari fina.
Asko da gozatua,
asko da egina,
eskertzekoa dugu
zure ahalegina.

Aurten sei hamarkada
apaiztu zinela,
baina aurrera doa
Joxeren nobela.
Adinak Donostian
jarri dizu gela,
orain hartu atsedean
merzei bezela.



zahartzen ari gara eta ez dugu lekukoa hartuko digun oinordekorik.

Non oinarritzen zara gehiago: filosofian edo Biblian? Beti esaten zenuen Jesukristo filosofoa zela.

Nik ez dut inoiz hori esan. Filosofoa baino gehiago zen. Zenbat gauza erantsi dizkiogun Jesukristori... Hura gizona izan zen, eta benetako gizona. Eta benetako gizona zelako agertu zen Jainkoaren pertsona. Hori teologia da. Nire desioa izan da jakitea zer den natura. Zer da mundua? Zer gara gu? Hori da nire sakoneko galdera. Eta hala bizi naiz, agure zahar bat bezala, afizio horiekin. Noizean behin "Aita Gure" bat ere errezatzen dut. Arazoren bat dudanean egiten dut hori. Gure amonek ere hori egiten zuten: problema bat zutenean, "Agur Maria". Eta hori ona da.

Ona al da?

Bai jauna!

Ez al da hori jarrera infantila?

Bueno, ondo, baina beste ezer ezin duzunean? Niri atera egiten zait.

Zuk barrenean daramazu. Baina zenbat jende akordatzen da Jainkoan soilik arazo bat duenean, ezinean dagoenean edo hiltzera doanean?

Bai, bai, baina hori ez da txarra. Esan dizudan igandeko meza horretara jende gaztea ez da joaten, baina itzuliko dira. Nire filosofo batek dioen bezala, "Ateoei utzi behar zaie ateoak izaten, eta kontsekuenteak izaten. Topo egingo dute, bilatuko dute". Bai, bai. Ez al duzu hala uste? Sortuko da beste talde bat. Elizak taldea esan nahi du. Bilkura bat da. Nik gazteengan dudan sinesmena ikaragarria da.

Zuk uste duzu katekesia irakasten dutenen lana ona dela.

Ez da perfektua, baina zerbait egin behar da umeekin, betiere gurasoek nahi badute. Igandean nire ilobekin egon nintzen. Aspaldi utzi zuten Eliza atzean, eta onak dira! Lehen aipatu duzu etika hitza. Pertsona bat etikoa ez bada, ez da ezer izango. Etikotasunean dago kristautasuna oinarrituta.

Vatikanoa edo Eliza Katolikoaren hierarkia ez al da barrera bihurtzen kristautasunaren oinarritura joateko?

Aita Santu berri honek beste bira bat eman die gauzei. Naturaltasuna eta jatortasuna ekarri du. Baina hor atzean dagoen ganadu beltz hori... Gustavo Gutierrez Askatasuneko Teologoarekin bildu zen orain gutxi Aita Santua, eta kardinal batek zioen zer inozoa zen Francisco teologo horrekin elkartzeagatik. Horrelako jendearekin nora joango gara? Eta hemen dugun hau horietakoa da; hau Aita Santuaren aurka doa.

Baina Aita Santu honen hitzak... Badago zerbait atzean edo marketin hutsa da?

Galdera ona da hori. Estetika aldetik gustatzen zait zer dioen, baina ikusi behar da sakonean aldatzen duen. Zerbait egiten hasia da: Vatikanoko Bankuan aldaketak sartu ditut, emakume bat ere sartu du...

Baina pederastiaren kasuei ez die heltzen.

Ez. Hori oso gogorra da. Baina hori zergatik gertatzen da? Zergatik obligatzen zaio gizonezko bati, erlijiosoa izateko edo apaiza izateko, zelibea izatera? Horren ondorioak hor ikusten dira.

Amaitu dugu elkarrizketa eta zerbait hartzera gonbidatu gaitu. Baina gauza batek arduratzen du Joxe. Beheranzko igogailua hartu aurretik berresten digu ez duela inongo mezurik esan nahi. "Esan ditudan astakeria guztiak ez jarri, aizu. Zuentzat ez dira izango astakeriak, baina han irakurtzen dituztenentzat agian bai". ■



MAXIMUS PENCIL DEKORAZIO ESTUDIOA

ESPAZIOAK PERTSONIFIKATZEAREN ARTEA

ARGI AGUIRREZABALAGA AZANZARI ETXETIK DATORKIO TOKIAK DOTORETZEKO, TXUKUNTZEKO, EDERTZEKO ETA, BATEZ ERE, BEZEROAREN IZAERAREN ETA GUSTUAREN ARABERA DEKORATZEKO GAITASUNA. “AITA ETXEGILEA IZAN ZEN, ETA AMAK ZUMAIAN ZABALDU ZEN LEHEN DEKORAZIO DENDA JARRI ZUEN MARTXAN”. GAINERA, IGONE AHIZPAREKIN BATERA ETA 13 URTEZ, ‘MARÍA CALDERÓN’ IZENENKO DEKORAZIO DENDA IZAN ZUEN. ARKATZA ESKUAN, HORTIK DATOR ESTUDIOAREN IZENA, BEZEROA ONGI EZAGUTU ONDOREN HASTEN DA IDEIA, ESKUZ, PLANOETAN JARTZEN. GERTUKO HARREMAN GOXOA URTEETAKO ESPERIENTZIAREKIN OREKATZEN ETA BERMATZEN DU.



ORIENTAZIOA

“Dekorazio estudioa da, ez altzariak edo objektuak saltzeko denda bat”, azaldu du Argik. “Nire zeregina proiektu bat zuzentzea da, orientazioa eskaintzea. Hortik abiatuta, helburua da, urteak pasa ondoren ere, bezeroak ikusi eta beraien etxeekin gustura dardela entzutea”.





KATALOGOAK ETA **TENDENTZIAK**

Nahiz eta altzariak saltzeko denda ez izan, hainbat katalogo eta aldizkari ditu bertan, eta edonork kontsultatu ahal ditu, eta nahi izanez gero, bertatik zerbait erosi. “Nire helburua ez da saltzea; beraz, bezeroek ez dute derrigorrezkoa niri erostea. Edozein tokitara joan eta eros ditzakete altzariak, objektuak... Gero, nik neuk ipintzen dizkiet beharrezko tokian. Alegia, nik proiektu bat gauzatu dezaket, baina ez du zertan nire produktuekin osatua egon”. Denetarik katalogoak ditu, eta orain, batez ere, dekorazio industrialera eramaten dela aipatu du. “Paleekin baldak egin, iturri zaharrekin pertxeroak... Vintage-a, graffiti-ak, furniture-a... Horixe da eramaten dena, baina bakoitzak bere estiloa aurkitu behar du”.

BEZEROEKIN HARREMAN ESTUA

Bezeroak ongi ezagutzea eta beraiekin gertuko harremana izatea da ezaugarri hauetako zerbitzuaren oinarria. “Bezeroarekin hitz egin behar da, asko, eta psikologo lana egin. Informazioa lortzea garrantzitsua da. Hala, bezeroaren gustuak ezagutzea, eramaten duen bizimodua jakitea, ezaugarrietara eta izaerara egokitzea... ezinbestekoa da proiektu eder eta gustagarri bat eskaintzeko”.

KONFIANTZAN OINARRITUA

Bezeroa eta Argiren artean konfiantza beharrezkoa da. Azkenean, elkar ezagutzeko aukera dute, baina gero “konfiantza izan behar dute nigan, hau da, etxea edo dena delakoa nola antolatu eta jarriko dudana ideian”. Hala ere, norbaiti zerbait gustatzen ez bazaio, kendu egiten dio. “Bezeroa gustura egotea, hori da nire lehen araua”.

ERA GUZTIETAKO PROIEKTUAK

Etxeak dekoratzen ditu normalean. Baina ez da soilik espazio horietara mugatzen. “Sukaldeak, gelak, egongelak... ere dekoratzen ditut, etxe osoa izan gabe”. Horretaz gain, dendak, erakusleihoak, tabernak... ere apaintzen ditu. Besteak beste, Kabi taberna, Flysch arropa denda, Kulunka zapata denda eta Eduardo Lizarralderen optika dekoratu ditu. “Bezeroak zer nahi duen esan ondoren, ikustera joaten naiz, gero pentsatu egiten dut, eta, birplanteatuta, nire aukera aurkezten diot plano batean”.

GREMIOEN **KOORDINAZIOA**

Talde on baten babesa du, eta horrek azken urteetan lanbide horien trikimailuak erakutsi dizkio. “Ikasi egin dut. Oinarria izan dut txikitatik, oinarri on bat, eta denborarekin gehiago landu eta ikasi dut”. Nahi izanez gero, gremioak kudeatzen ditu, “baina ez da derrigorrezkoa, bakoitzak bere kontura ere kontrata ditzake bere langileak”.

OHIKOA BAINO ZERBITZU **MERKEAGOA**

Inguruko herrietako dekorazio estudioetan baino zerbitzu merkeagoa eskaintzen du Argik. “Prezioak asko jaitsi ditut, ia dekoratzaile batek kobratzen duen erdia”. Esaterako, etxe oso baten dekorazio proiektua pentsatzeagatik 250 euro kobratzen ditu. “Etxea bera neurtu egin behar badut, planorik ez duelako edo neurriak gaizki hartuta daudelako, prezioa pixka bat garestitzen da, 300 euro”. Gainera, behin proiektua pentsatu eta aurkeztu ondoren, lanen segimendu zehatz eta zuzena egiten du. Horrek beste 500 euro balio du. “Segimenduak urtebete edo gehiago ere irautu dezake, kasuaren arabera. Nahi duenak Juan Belmonte kaleko 2. zenbakian aurkituko naute, eta bestela maximuspencil@gmail.com helbide elektronikoan edota 699 495 256 telefonoan”.

Hurrengo bilera irekia

- Maiatzak 7, asteazkena
- 18:00etan
- Alondegiko Oxford aretoan

II. Berdintasun plana osatzeko bete galdetegia eta utzi Alondegiko, kiroldegiko edo udaletxeko postontzian edota bidali e-posta honetara: berdintasuna@zumaiakoudala.net



Erein,
hazi eta hezi
parekide

II. Berdintasun plana



LEIALTASUN TXARTELA 2014

	EGUNAK	HILEKO ESLOGAN-A	ESKAINNTZA	AZALPENA
URTARRILA	7tik bukatu arte	Puntuak trukatzea	Puntuak	Lortutako puntuak trukatzea
OTSAILA	1-28	Sasoian jartzeko	Saria	10 euroko txartelak, botika, parabolika, edergintza zentro, belardenda, fisioterapia, optika eta ile-apaindegietan trukatzeko
MARTXOA	1-31	Pintxoz pintxo	Saria	Kontsumizioa tabernetan. Balioa 3 €
APIRILA	1-30	Udaberria Zumaian	Deskontua	5, 10, 20 eta 50 euroko erosketari txartela.
MAIATZA	1-31	Udaberria Zumaia	Deskontua	5, 10, 20 eta 50 euroko erosketari txartela.
EKAINA	1-30	Merkataritzaren astea	Saria	%5eko deskontu finkoa ekaineko larunbat batean.
UZTAILA	1-30	Badator uda	Deskontua	2 lagunentzako bazkaria/afaria. Balioa 60 €.
ABUZTUA	15-31	Eskolara Itzultzea	Saria	Eskolara itzultzea. 5, 10, 20, eta 50 euroko erosketari txartela.
IRAILA	1-30	Eskolara Itzultzea	Saria	Eskolara itzultzea. 5, 10, 20, eta 50 euroko erosketari txartela.
URRIA	1-15	Eskolara Itzultzea	Saria	Eskolara itzultzea. 5, 10, 20, eta 50 euroko erosketari txartela.
AZAROA	1-30	Bezeroaren hilabetea	Deskontua	5, 10, 20, eta 50 euroko erosketari txartela.
URTE OSOA			Puntuak	20 €-ko erosketari/kontsumoa= puntu 1. 300 puntu = 10 €-ko txakea

SANTELMOAK 2014

OSTIRALA 25

19:00etan San Pedro Txiki eta Txikienak abesbatzaren kantu kalejira

22:30ean Aita Mari aretoan, bertso jaialdia. Bertsolariak: Unai Agirre, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Iñigo Manzidor Mantxi eta Aitor Mendiluze. .

Gai-jartzailea: Jon Maia.

23:00etan Txosna eremuan kontzertuak: Estala eta Las Tea Party

LARUNBATA 26

11:00etan Udal Txistulari Bandaren kalejira.

12:00etan San Telmo ermita inguruan, Txupinazoa jaiari hasiera emateko.

Jarraian Musika Eskolako trikitilariak lagunduta, Jaitsiera.

Ondoren Itxas Gain elkarteak antolatuta, Hamaiketakoak. Tarte alaitzeko, Bertso Eskolako ikasleen eta trikitilarien saioak.

12:15ean DINBI BANDA perkusio taldearen kalejira.

13:00etan Ondartxo plazan, Musika Eskolako haurren eskutik, euskal dantzen ikuskizuna. Euria eginez gero, Aita Mari aretoan.

14:30ean Torreberrin, Herri Bazkaria.

17:30ean Haurren Danborrada Sagarbide ikastetxetik irtenda. Danborradaren aitzakian Jakintza elkarteak argazki rally bat antolatatu du. Begiratu oinarriak.

18:30ean Erriberan hasita The Joselontxo's txarangaren saioa.

19:00etan kofradian, haurrentzat Erromeria

22:00etan Txosna eremuan, kontzertua: Iseka, Siroka, McOnak

22:30ean kofradian, Jon Urbietarekin disko festa.

IGANDEA 27

9:30ean ZUMAI Txaranga eta gaztetxoek kalejira herrian zehar.

11:00etan Arbustain Motor elkarteak antolatuta, Hamaiketakoak herriko itsasgizon zaharrentzat.

11:00etatik 14:00etara Oxford aretoan, Alondegian, Santelmotako XVI. Scalextric txapelketa.

12:30ean TRIKITXAS Bikotearen kalejira.

13:00etan Gure esku dago taldearen Kantu-jira eta giza katea

17:00etan Buruhandi eta Erraldioen kalejira, udaletxetik irtenda.

17:00etatik 19:00etara Scalextric saio gehiago.

18:00etan TRIKITXAS Bikotearen kalejira.

18:30ean haurrentzat MUGI-MUGI Berbena

22:00etan Txosna eremuan: Eratu, eta Ingo Al Deu? (erromeria)

22:30ean Danborrada Berezia.

22:30ean Kofradian, dantzaldia EZTEN GIRO taldearekin.

Gauerdian Kofradian Bandera Igotzea PASCUAL GOMEZarrantzale ohiaren eskutik. Bertan Arbustain Motor elkarteak bere txapel oroigarria oparituko dio.

Danborra amaitutakoan berbena EZTEN GIRO taldearekin Kofradiako plazan.

ASTELEHENA 28, SAN TELMO EGUNA

10:15ean Ohiturazko prozesioa San Telmo ermitara.

10:30ean Meza Nagusia, BEHEKO PLAZA ABESBATZAK abestua, itsasoaren aurrean otoieta eta Parrokiara itzulera. San Telmoren erlikia gurtzea.

Ondoren, gonbidatuei hamaiketako eskainiko zaie Kofradian.

12:30ean Ondartxo plazan GORRITren saioa.

Ordu berean JAGOBA ETA MADDALEN trikitilarien saioa.

17:00etan Odieta pelotalekuan, ESKU PELOTA PARTIDUAK.

17:30ean Kantauri plazan KULKIrekin haurrentzat jokoak: Artzainen Kirol Parkea

18:30ean BETI JAI Fanfarrearen ekitaldia plazan, eta jarraian herriko kaleetan zehar.

19:00etan Dantzaldia Kofradiako plazan, OROTS taldearekin.



22:30ean OROTS taldearen bigarren emanaldia Kofradian.

OSTIRALA 2

18:00etan Eusebio Gurrutxaga plazan Beheko Plaza elkarteak antolatuta, Rana eta Pote Txapelketak.

20:00etan Torreberrin, BERTSOTAN JAI herriko bertsolarien saioa.

22:30ean Txosna eremuan, Bertso Gaua herriko musika taldeekin.

LARUNBATA 3

11:30ean Haur Jolasak Ondartxo plazan Itxas Gain elkartearen eskutik.

Ordu berean Eusebio Gurrutxaga plazan, Olagarro-zopa XIII. Lehiaketa.

Ekitaldia alaitzeko ELUSTONDO ANAI-ARREBAK trikitilarien saioa.

12:00etan herriko kaleetan BEHEKO PLAZA eta SESTAOKO ORFEOIA abesbatzen saioa.

18:30ean Amaiaiko Plazan hasita INCANSABLES txarangaren saioa.

14:30ean Txosna eremuan, Bazkaria eta kantu saioa.

18:00etan Kofradian, haurrentzat TOR MAGOaren ikuskizuna

18:30ean Plazan hasita INCANSABLES txarangaren saioa.

19:30etan Kaleetan zehar PIT ETA PATEN musika eta antzerkia

22:00etan Txosna eremuan, kontzertua: Boots boys, DROP, Bellator

22:30etik aurrera Kofradian BIDE BATEZ taldearekin dantzaldia.

IGANDEA 4

12:00etan Itzurun hondartzan, ZALDI LASTERKETA.

Ordu berean IRAUNKORRAK txarangaren saioa.

Eta Eusebio Gurrutxaga plazan, ERKIBE elkartearen eskutik, Olagarro-zopa dastatzeko aukera.

17:00etan Aita Mari aretoan, Haurrentzat antzerkia: TXIPLI-TXAPLA.

18:00etan Trainerillen estropadak, XXXI. San Telmo saria eta Emakumeen San Telmotako II. estropada.

Eta IRAUNKORRAK txarangaren saioa.

19:00etan Kofradian, erromeria BASAJAUN taldearekin.

22:30ean BASAJAUN taldearen bigarren saioa.

Gauerdian Bandera jaista eta Santelmoei agurra.

Izan zeresan

Doinua: "Ez nau izutzen negu hurbilak"



1.

Elkarrizketak, gazte ugari azken sei hilabetetan aurpegi ezagun asko, esaldi sakoneko karteletan globo zuriak ideiaz betez, ikastolan, tabernetan guk zer esana badegulako sistema krudel honetan

3.

Hitz egin dugu zer eskatzen den gazte mugimendu bati gazte batzuek pentsatzen dute ari garela ederki beste batzuek sentitzen dute gaztetxea pixkat urruti parte hartzeko atak jakin irekiak daude beti

2.

LOMCE legea, titulitisa, hezkuntzaren lekzioak langabezian gazte ugari edo lan prekarioak Gallardon nor da lege bihurtzeko besteen obarioak ezarri nahian dabilta gure amets eta desioak

4.

Ingurukoa aztertu eta izan behar da kritiko ezin da onartu pasatakoa pasatu dela ta kito beste aldera begiratuta galduak gaude betiko bada garaia gure arazoei aurre egiteko tinko





Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA


Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



denda:

Mendaro marinela, 1

tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

tel.: 943 861 117

fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako

era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



AEG
ZURGAGAILUA
AE4575
 • 2000W
 • "PARKETTO" erratza

85€



INOX

WHIRLPOOL
KONBIA
WBE3625
 • No frost
 • 200 X 60 cm

549€



TEKA
HOZKAILUA
FT2221
 • 144 X 55 cm

279€



INDUKZIOA

749€

ELEKTROLUX
BIKOTEA
EHH6332FOX +
EEC2400BOX

ELTZE AZKARRA
OPARI



PIROLITIKOA

CANDY
GARBIGAILUA
 • 1.000 bira/min
 • A
 • 7 kg

299€



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com